

HITZA



Mikel Etxaniz eta Joxean Urbietta Zarauzko hondartzako futbol txapelketaren antolatzaileak eta epaileak dira. ONINTZA LETE ARRIETA

«Lagunartea da hondartzako futbol txapelketan mantendu gaituena»

Zarauzko Paco Urkia 74. Hondartza Futbol Txapelketaren finalak igandean jokatuko dituzte
 • Mikel Etxaniz eta Joxean Urbietta kirol ekitaldiaren antolatzaileak eta epaileak dira //2-3

Zumaia Helduek bizikletan ibiltzen ikasteko saioak antolatu dituzte udalak eta foru aldundiak //5

Mikel Reparaz kazetariak hitzaldia emango du gaur Azpeitian

Amerikako Estatu Batuetan berriemaile aritutakoak Munoaundi elkarteak antolatutako hitzaldi zikloko lehen saioan parte hartuko du //7

Jaiak bihar hasiko dituzte Getariako San Prudentzian

Larunbaterako ekitaldiz betetako eguna antolatu dute. Bertso afariaren orde, bertso bazkaria egingo dute; horrez gain, berritasun gehiago ere izango da //4

IDEE FORM
 zure etxe-ideiekin bat egiten dugu

Juan XXII, 16 • AZPEITIA • 943-00 53 94 • 627 65 14 59
 ideeform@ideeform.com • www.ideeform.com

@ideeformazpeitia • ideeform



Mikel Etxanizek eta Joxean Urbietak kontu asko dute esateko; izan ere, umetan hasi ziren jokatzeko hondartzan, eta egun epaile eta antolaketa lanetan jarraitzen dute. O.LETEARRIETA

Urtemugaren atarikoak

Igandean jokatuko dituzte finalak Paco Urkia 74. Hondartzako Futbol Txapelketan
• Umetatik txapelketaren bueltan dabilzanetako bi dira Mikel Etxaniz eta Joxean Urbietak

–ONINTZA LETEARRIETA

Futbolagatik, berdin litzateke igande goizean euria egingo balu ere. Ohituta daude hotzarekin, euripean nahiz elurretan jokatzerara. «Baina igandekoa festa bat da», eta, horregatik, ateri egitea gustatuko litzaieke hondartza futbolaren antolatzaileei. Bai, behintzat, Mikel Etxaniz eta Joxean Urbietak zarautzarrei.

Bizitza osoa daramate hondartzako futbolari lotuta. Umetan hasi ziren jokatzeko, eta azken urte mordo epaile eta antolaketan lanetan dabilta. Etxanizek azaldu du 35 urtez ari dela epaile lanak egiten. «Aurten hartu nahi nuen erretiroa, baina Joxeanek esan zidan itxoiteko, datorren urtea egingo dugula 75. urteurrena delako, eta hementxe gaude».

Aurreko urteetan bezala, zazpi hilabetez aritu dira hondartza futboleko partidetan epaile la-

nak egiten. Senior mailako gizon-zkoekin aritzen dira, eta baita seniorren txapelketa antolatzen ere. 15 partida izan dira guztira, eta bi astetik behin egokitzen zaie normalean partidak zuzentzea. Igande honetan amaituko dituzte lanak, finalen tarte iritsi baita.

Gero, abuztuan ekingo diote denboraldi berria prestatzeari. Berezia izango da, 75. urtea bete-ko baitu hondartzako txapelketak. «Festa handi bat egin nahi da datorren urtean, eta talde bat ari da hori prestatzen jada», jakinarazi du Urbietak.

Urtemugarik gabe ere, nahikoa lan izaten dute dena antolatzen. Dena den, umeen txapelketa egiteak «meritu handiagoa» duela uste dute Etxanizek eta Urbietak, talde gehiago direlako eskolarteko txapelketan. Seniorretan, berriz, aurten emaku-

mezkoen txapelketa kolokan egon da, baina azkenean lortu dute aurrera ateratzea. Hasiera batean hiru taldek eman zuten izena, baina ibilian-ibilian, sei talde osatzea lortu zuten. «Hiru talde horietako neskek gogo handia zuten jokatzeko, eta beraiek mugitu dira eta beraiek lortu dute sei taldetara iristea», azaldu du Etxanizek.

Taldeak sortzeko ez ezik, epaile lanak egiteko ere zailtasunak dituzte neskek. Aurten, behintzat, emakumezkoen ez da animatu zeregin horietarako.

Gazteak ate joka

Etxanizek eta Urbietak beste bi lagunekin osatu dute taldea, bai txapelketa antolatzeko, bai epaile gisa aritzeko: Antonio Menayo zumaiarra eta Albontza Grijalba Zarauzko bizilaguna. Toñi Mateos ere aipatu dute, baina argitu

dituzenez, «esperientzia txarra izan zuen mutilekin, eta nesken epaile aritzen da».

Adinean ere aurrera doazenez –Etxanizek, esaterako, 65 urte ditu–, ardurak belaunaldi gazteagoei pasatu nahi dizkiete. Eta atzetik jendea badatorrela esan dute. «Gazte batzuek entzun zuten gu erretiratzekoak gizona, eta etorri zitzaizkigun beren buruak eskainiz», azaldu dute. «Guk esan genien pixkanaka egingo dugula aldaketa, lagunduko diegula eta ez ditugula utziko bakarrik egun batetik bestera», zehaztu du Urbietak.

Erretiroa hartu aurretik, ordea, hurrengo urteko urtemugan parte hartu nahi dute epaile beteranoek.

Hainbeste urtean hondartza futbolari lotuta jarraitzearen arrazoiez galdetuta, Urbietak argi du zein izan den gakoak: «La-

gunarteko giroa. Horrek mantendu nau ni honi lotuta, giro ona baitugu. Gure hamaiketakoak eta bazkariak egiten ditugu, lagunartea egin dugu».

Urbietarentzat, gainera, Zarauzko ikurretako bat da hondartzako futbola. Etxaniz ere ildo beretik mintzatu da: «Pena litzateke guk ez jarraitzeagatik hau bukatzea. Honek jarraitu egin behar du, bai ala bai».

Giro ona, lehengokoa

Tarteka atzera begiratzea normala da, horrenbeste urtez hondartza futbolari lotuta ibili denak. Askok aldatu da, gainera, txapelketa eta haren ingurua. Batetik, kanpotik etortzen ziren taldeak gutxituz joan dira urtean joan-etorrian. Aurten, esaterako, seniorretan talde guztiak zarautzarrak izan dira, getariarren talde bat izan ezik; emakumez-

UROLA KOSTAKO HITZA

Osteguna, 2018ko apirilaren 26a

koetan zein gizonezkoetan talde bana etorri da ondoko herritik. Gizonezkoetan, gainera, getariarrek beraiek izan dira Liga erregularreko txapelkunak. Finalera ez dira iritsi, finalurrekoa galdu baitzuten.

Orain urte batzuk, ordea, bestelakoa zen taldeen jatorria. «Duela 10-15 urte etortzen ziren Oriotik bizpahiru talde, Getariatik beste bat, Zumaiatik beste pare bat, Azpeititik hiru, Aiatik, Usurbildik eta Aginagatik ere bai...». Gogoan dute Donostiako taldeak ere bazirela garai batean. Hala esan du Etxanizek: «Partida politik izaten ziren gure gazte denborakoak, oso talde gogorak bazeudelako zarauztarren, getariarren eta donostiarren artean».

Bestetik, partidez eta taldeez gain, garai bateko giroa nabarmendu dute bi epaileek. «Atsedendietan talde bakoitzak txakolina edo bestelako edariak ateratzen zituen, eta trago bat hartzen zen. Orain ura eta halakoak edukitzen dituzte». Urbietak gogoan ditu aitaren partidak. «Zortzi bat urte genituela etortzen ginen aita lagunekin jokatzen ikustera. Sidras Zapiain taldean jokatzen zuen, eta sagardotegikoak han etortzen ziren furgonetarekin, eta partida amaieran sagardo kaxak ateratzen zituzten». Irabazten zenean, zalaparta ere handitu egiten zela oroitu du.

Hori bai, epaileen lana orain errazagoa dela uste dute. «Ateen sareak jartzea abantaila handia izan zen, batzuetan horrela jakiten dugulako gola sartu duten ala ez». Etxanize eta Urbietta betaurrekoen beharrik gabe moldatzen dira partidak zuzen-



«Lagunarteko giroak mantendu nau hondartzako futbolari lotuta»

Joxean Urbietta
Epailea

«Garai batean atsedendian txakolina ateratzen zen; orain, ura»

Mikel Etxaniz
Epailea

tzeko, baina Urbietak aitortu du aktak idazteko ia denek behar dituztela lenteak.

Biak jokalaria izanak direnez, protestak patxadaz hartzen dituztela esan dute. «Normala da kekatzea epaileari, geuk ere egiten genuen. Modua da garrantzitsua, eta niri, behintzat, asko kostatzen zait txartela ateratzea protestatzeagatik», esan du Etxanizek.

Txapelketari dagokionez, horrek izena aldatu du aurten. Iaz

hil zen Paco Urkia futbol klubeko presidente ohia oroitzea izan da helburua. «Bizitza osoa pasatu zuen lanean futbol klubean, eta horregatik jarri zaio bere izena», gogoratu du Urbietak. Etxanizek, berriz, oroitu du partida batean Urkia izan zutela epaile bera umea zela. «11 urte izango nituen, eta ondo gogoan dut getariarren aurka jokatu genuela eta sekulako hotza egin zuela. Orduan jada erabiltzen genituen ate beltz hauek», esan du, seniorek erabiltzen dituzten atea seinatuz.

Eskaera argia egin dute

Hain zuzen, atena aipatzean gogoratu da badutela eskaera zehatz bat. Etxanizek serio-serio esan du badela ordua ate berriak erosteko. «75. urtemugaren harira, ederra litzateke umeenak bezalako atea ekartzea, hauek 50 urte baino gehiago baitituzte». Urbietta ere iritzi berekoa da: «Inoiz ez da ezbeharririk gertatu, baina haizeak bota izan ditu, eta arriskua hor dago». Eskolartekoenak arinagoak eta sendoagoak direla azpimarratu dute.

Iban San Martin Kirol zinegotzia ere aipatu du Etxanizek. «Plaieroetan aritzen da, eta atezaina da, gainera. Eta, aurrekoan hala esan nion: 'Nahiko nikek atea gainera erori eta koskorreko on bat hartuko bahu, konturatzeko nola dauden atea!'».

Ginkana eta mus txapelketa etzi, Azken Portu auzoan


GIZARTEA // Azken Portuko Komisiyuak mus txapelketa eta ginkana antolatu ditu larunbaterako. Ginkana 17:00etan hasiko da Martiñene plazan, eta auzoan zehar egingo diren hainbat probez osatuta egongo da. Mus txapelketari dagokionez, izena 15:30ean eman beharko da Martiñene plazan, bikoteko 10 euro ordainduz. Partidak 16:00etatik aurrera jokatuko dira auzoko tabernetan.

Atzerriko ikasketen homologazioaz ariko dira Etxezabalan

GIZARTEA // Udaleko Immigratio Zerbitzuak hitzaldia antolatu du gaurko, atzerrian egindako ikasketen agiriak homologatzeko orduan sor daitezkeen zalantza argitzeko. Bidez Bide elkarteko ordezkari batek eskainiko du saioa, Etxezabalan, 18:00etatik aurrera.

Poesia liburu berria aurkeztuko du Portilla Ezkerrak

KULTURA // Imanol Portilla Ezkerrak bere laugarren poema-liburu ilustratua ondu du, *Si llegas, será después. Musicando el deseo* izenburupean, eta bihar Sanz Enea kultur etxean aurkeztuko du, 19:00etan. Aurkezpen ekitaldian bere olerkiak errezitateaz gain, Hego Amerikako hainbat emakume poetenak ere eskainiko ditu. Horretarako, hainbat musikari eta abeslari izango ditu ondoan.



Imanol Portilla Ezkerra. UTZITAKOAK

Txapelketari buruz

FINALAK

Urrian hasi zituzten lehen partidak hondartzan, eta igandean amaituko dute aurtengo txapelketa. Honakoa da ordutegia:

10:00. Desfilea egingo dute partidak hasi aurretik. Klubak malekoian duen lokalaren aurretik abiatuko dira talde guztiak, txistulariek girotuta.

10:15. Partida guztiak batera hasiko dira. Suziri bat jaurtitzan dute hasiera emateko.

12:00. Berdinketengatik penaltirik eta halakorik ez bada, ordu horretarako hasita egongo da sari banaketa ekitaldia, hondartzan bertan.

SARI BITXI BATZUK

Edozein txapelketatan bezala, hainbat sari emango dute. Batzuk, ordea, beste batzuk baino bereziagoak izango dira. Esaterako, hauek:

Lehenengo golari. Finalen egunean, aurreneko gola sartzen duenaren izena apuntatzen

dute antolatzaileek, eta sari bat jasotzen du.

Begirada zorrotzari. Epaile onenarentzako saria. Mikel Etxanizek eta Joxean Urbietak ez dute nahi izaten sari hori jasotzerik; epaile berriei ematea nahiago izaten dute.

Jarraitzaile sutsuenari. Taldea gehien animatzen dutenentzat.

SENIORREN PARTIDAK

Senior neskak Liga.

Kupela taberna-Kebidek

Senior neskak XIII.

Emilio Olazabal Kopa:

Balearrri Elkano Arraindegia-

Lukas ardotezia

Senior mutilak Liga:

Euskalduna futbol taldea-

Ulacia bidaiak

Senior mutilak XXIII.

Juan Irigarai Kopa:

Kutixi artisauro izozkiak-

Arrano taberna

ESKOLARTEKOAK

Alebin neskak 5. maila:

Antoniano 5BN-Orioko 51

Alebin mutilak 5. maila:

Lastresak-Super Heroiak

Alebin neskak 6. maila:

La Salle AN-Snopiak

Alebin mutilak 6. maila:

Aupa gu ta gutarrak-

Zaralardi 6M

TXAPELKETA, ZENBAKITAN

Jokalari kopurua.

-Senior neskak: 84

-Senior mutilak: 198

Talde kopurua.

-Senior mutilak: 11

-Senior neskak: 6

-Alebin mutilak: 30

-Alebin neskak: 25

-Benjamin neskak: 26

-Benjamin mutilak: 30

Partidak, gutzira.

-Eskolartekoek 300 partida

-Seniorek 95 partida



Erreportajea eskainiko du Erlo Telebistak, ostiralean 22:00etan eta asteburuan zehar. Internetez, berriz:

erlotelebista.eus
zarauzkohitza.eus
urolakosta.hitza.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK) DIRUZ LAGUNDUA

www.inmosalbide.com



Zarautz. Kiriki Kalea (Alde Zaharra). 3 logelako etxea. Trastelekua, Gasa eta Igogailua. **250.000 euro!**

Zarautz. Vista Alegre hasieran. 3 logelako etxea guztiz erreformatuta. **330.000euro!**

Zarautz. Azken Portu. 3 logelako etxea. Oso egoera onean. Ez du igogailurik. Kalefazioa gasarekin. **264.500 euro!**

Zarautz. Argoin Auzoa. 3 logelako etxea egoera onean. Txabola-Garajearekin (45m²). **225.000euro!**

Zarautz. Patxiku kalean (Alde Zaharra). 3 logelako etxea. Gasa eta Igogailuarekin. Azkeneko solairua. Terraza ederra. **295.000euro!**

Zarautz. San Inazio kalean. 2 logelako etxea guztiz berrituta. Oso argitsua. Sukalde eta Saloi handiak. Kalefazioa gasarekin. Bigarren pisua igogailurik gabe. Trastelekua. **310.000euro!**

Aia. Etxe adosatua, izkina eginez. Behoko suarekin eta bi autorentzako garajearekin. Fruitu arbolekin. 100m²-ko lorategia. Oso egoera onean. **350.000euro!**

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665 71 85 96



Larunbaterako egun osoko festa eguna antolatu dute Getariako San Prudentzio auzoan. NEREA URANGA

Betikoari helduta, baina egitaraua berrituta datoz sanprudentzioak

Mus txapelketarekin bihar hasiko dituzte festak Getariako San Prudentzio auzoan • Larunbaterako adin guztientzako ekitaldiak antolatu ditu San Prudentzioko Lagunak taldeak

–**NEREA URANGA** *Getaria*
Mus txapelketarekin hasiko dituzte bihar auzoko jaiak Getariako San Prudentzion. Larunbaterako, San Prudentzio egunerako, egun-pasa festan egiteko modua eskainiko dute: goizetik iluntzera bitartean adin guztietakoen-tzako ekitaldiak antolatuta ditu San Prudentzioko Lagunak taldeak. Auzoko jaietan ohikoak diren hainbat ekintzari helduko diote aurten, baina berrikuntzak ere izango dira.

Larunbatean San Prudentzioko auzotarrak txistularien doinu- esnatuko dira. Meza ondoren, herri kirol erakustaldia izango da Mikel Lopetegi *Urrarekin* eta Xabier Peñagarikanorekin. Horiez gain, «sorpresaxoren bat» ere egon daitekeela aurreratu dute festen antolatzaileek. Segidan, Txeru taldeko dantzari txikiek sei bat dantza eskainiko dituzte.

Dantzarien saioa bukatu ostean, Supituki taldeak haurrentzako ikuskizuna estreinatuko du: «Orain arte, Supituki taldeak helduentzako inprobisazio ikuskizun bat egin izan du, baina orain hurrekin hasi nahi dute, eta aurreneko emanaldia San Prudentzion egingo dute, gauza berezi bat izango da hori», azal-

du du Ainhoa Lazkano San Prudentzioko Lagunak taldeko ki-deak.

Baina ez da hori bakarrik izango auzoko festetako berritasun bakarra: bertso afariaren orde-z, bertso bazkaria antolatu dute larunbaterako. «Aurten, kontuan izanik hurrengo egunean Getarian triatloia jokatu dela eta herri osoak egon beharko duela bertan, pentsatu genuen bazkaria egitea, hala publiko zabalago-ari zabaltzeko aukera genuen eta jendeak hurrekin-eta etortzeko aukera izango du», azaldu du Lazkanok. Bazkaria izatera pasatu arren, urteroko menua mantenduko dute festen antolatzaile-

leek: zurrurutuna eta zikiroa. «Euskal Herri mailan galtzen ari den ohitura bat da jaki horiek jatea, eta guk horri eutsi nahi diogu». Bertsolarien saioa eta gero, bazkalondoa girotzeko, trikitilariak ariko dira. Bazkarirako txartelak Getariako Harritarte dandan daude salgai bihar arte. Bazkaritarako 80-90 lagun biltzea espero dute.

Larunbatean, San Prudentzio auzoan festa giroan jarraitzeko, Nafarjito Festa antolatu dute La Jodedera taldearekin. «Mojito festa antzeko bat da, besteak beste bertsioak eta jotzen ditu talde horrek eta festa giroarekin jarraitzeko era ona izango da».

tegi *Urra* eta Xabier Peñagarikano.

Ondoren, Txeru dantza taldeko dantzari txikien emanaldia.

13:00. Txikientzat ikuskizuna Supituki taldearekin.

14:30. Bertso bazkaria: Aitor Sarriegi eta Agin Labururekin. Bazkarirako txartelak Harritarte dandan daude salgai bihar arte.

Ondoren, Zumaiako trikitilariak.

19:00. Nafarjito Festa, La Jodedera taldearekin.

Egitaraua

BIHAR, OSTIRALA

22:00. VI. Mus Txapelketa, plazako karpan.

APIRILAK 28, LARUNBATA

10:00. Gazte Alaiak txistulariekin diana, baserriz baserri ibiliko dira. Meza aurretik, txistulariekin *San Prudentzioko martxa* eta erretreta.

11:00. Meza nagusia.

12:00. Herri kirolak: Mikel Lope-

Bertan behera gelditu da Juan Hernandezen gaurko hitzaldia

GETARIA // Getariako Eskubide Sozialen Kartak, Elan Euskadik, Gaztetxeak eta Getariako Udalak gaurko *Necropolitics vs. Giza eskubideak* izenburu hartuta hitzaldia zuen antolatuta. Juan Hernandez hizlariak, ordea, ezin izango du gaur Getariara joan. Ondorioz, antolatzaileek bertan behera utzi dute solasaldia. Hala ere, saioa aurrerago egiteko asmoa agertu dute antolatzaileek.

Berrikuntza tresnei buruzko ikastaroa, langabetuentzat

EKONOMIA // Urola Kostako Udal Elkarteak berrikuntza tresnei buruzko ikastaroa antolatu du langabetuentzako, «edozein enpresatan berrikuntza lantzeko beharrezkoak diren konpetentzia, ezagupenak eta tresnak» irakatsiko dituzte. Ikastaroa maiatzaren 2tik ekainaren 22ra artean izango da, goizez. Denera, 215 ordukoa izango da. Bertan parte hartzeko izena emateko azken eguna bihar da.

Orioko Udalak uda sasoirako langile bat kontratatuko du

ORIO // Orioko Udalak turismo bulegorako eta kanpineko harrerarako pertsona bat hartuko du lanerako aurtengo uda denboraldirako (ekainaren 1etik irailaren 30era) eta deialdia egin du lanpostu hori betetzeko. Deialdian parte hartzeko, langabetua izan behar da. Interes dutenek eskaera Orioko udal-etxeko bulegoetan aurkeztu beharko dute maiatzaren 15a baino lehen.



Orioko kanpina. HITZA

Getariako 19. Trikitilari Gazteen Txapelketako izen ematea ireki dute

–**MARIA MAYA MANTEROLA**

Getaria

Maiatzaren 26an ospatuko da Euskal Jaia Getarian, eta egun horretako egitarauaren barruan antolatu dute Getariako 19. Trikitilari Gazteen Txapelketa. Sei bikoteren artean jokatu dute txapela egunean bertan, 17:00etan, Berdura plazan. Bikote gehiagok izena emango balu, aurrez kanporaketa egingo dutela jakinarazi dute. Txapelketarako izena emateko azken eguna Getariako udaletxean eman behar da.

Txapelketan 18 urte arteko trikitilariak parte hartu dezakete. Bikote bakoitzak hiru pieza jo behar ditu: Trikitia, pot-pourria (gehienez zazpi minutuko iraupena) eta aukeran Arin-arina, fandangoa eta porrusalda. Epaimahaiak honakoa baloratuko du: piezen zailtasuna, bat etortzea, kantua, dantzagarritasuna



Aurreko edizio bat. HITZA

eta panderojolorean lana. Parte hartzaileek baserritar arroparekin azaldu beharko dute.

Txapelketaren bikote irabazleak txapela eta 250 euro jasoko ditu, baina bikote denek jasoko dituzte sariak. Horrez gain, getariar bikote onenari ere saria emango diote.

Afrikako dantzen masterclassa, maiatzaren 5ean

KULTURA // Dantza saioez bete-ta dator maiatza. Hasteko, hilaren 5ean, Dantzazaleon Eguna izango da, eta horren barruan, Afrikako dantzen masterclassa egingo da. Astinduko bazkideentzat doan izango da, eta besteentzat 15 euro. Egun horretan bertan bazkaria ere izango da. Aurreko kasuan bezala, doan izango da bazkideentzat; bazkide ez direnek 15 euro ordainduko dituzte. Izenak maiatzaren 2ra arte eman daitezke Alondgia kultur etxean (10:00-13:00), edo astindu.zde@gmail.com edo kulturetxea@zumaia.eus helbideetara idatzita.



Saoirse Ronan. HITZA

'Lady bird' filma emango dute gaur, zineforumean

KULTURA // Azken Oscar sarierarako bost hautagaitza lortu zituen *Lady Bird* film estatubatuarra emango du gaur Ostarrena zineklubak zineforum saioan. Greta Gerwig aktoreak zuzendari bezala egindako lehen lana da hau, eta Saoirse Ronan irlandarra du aktore nagusia. Nerabazarotik heldutasunera salto egiten duen gazte baten istorioa kontatzen du. Saioa 22:00etan hasiko da, Aita Mari zinema aretoan.

Iraitz Arizkorretaren hitzaldia izango da bihar, Torreberri

GIZARTEA // Maiatzaren 1a gerturatu ari dela eta, Iparra taldeak langile klasea kontzeptuaren inguruko hausnarketa saioa antolatu du: *Langile klasea egun: analisi bat* hitzaldia izango da bihar, 19:00etan, Torreberri gaztetxean. Hizlaria Iraitz Arizkorreta izango da, gaiaren inguruan hainbat testu idatzi dituen egilea.

Ikastaroa antolatu dute helduek bizikletan ibiltzen ikas dezaten

Aldundiak eta Zumaia Udalak elkarlanean antolatutako ekimena da • Maiatzaren amaieran eta ekainaren hasieran egingo dute, eta izen-ematea zabalik dago

- JUAN LUIS ROMATET

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun Sailak eta Zumaia Udalak elkarlanean antolatuta, bizikletan ibiltzen ikasteko ikastaro labur bat egingo dute herrian. Ikastaro hau 18 urtetik gorako pertsoneri zuzenduta dago eta bi asteburutan egingo da; maiatzaren 26an eta 27an, eta ekainaren 2an eta 3an, hain zuzen ere. Saioak Zumaia Herri Eskolako patioan egingo dira, eta izen-ematea zabalik dago jada Lubaki kiroldegian. Jarduera doan izango da.

Hirugarren urtez antolatuko ditu aldundiak mota honetako ikastaroak. Aurrez, Errenterian eta Eibarren egin dira, «emaitza oso onekin», azaldu zuen Marisol Garmendia Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako diputatuak atzo goizean egindako aurkezpen ekitaldian. Berekin batera izan zen Oier Korta Zumaia alkatea. Zumaian egingo diren saioak aurtengo lehenak izango direla ere adierazi zuen, baina ez dute baztertzen aldunditik ikastaro gehiago antolatzeari.

18 urtetik gorako pertsona orori zuzenduta badago ere, berez, adineko jendearentzat pentsatuta antolatu dute. «Adineko askok ezin izan dute bizikletan ibiltzen ikasi, edo urteak daramatzate bizikleta batean ibili gabe, eta horrek segurtasun arazoak sortzen dizkiete», gogoratu zuen Garmendiak. Bizikletan ibiltzea jarduera osasuntsua dela adierazi zuten ekitaldian zehar diputatuak eta alkateak. «Mugikortasun iraunkorra sustatzeko ekintza ona da bizikletan ibiltzea. Ez ditugu bizikletan ibiltzeak sortzen dituen onurak ezagutzen. Oinez edo autoz ibiltzen gara gehienbat. Bizikleta, berriz, gailu eroso eta iraunkorra da. Gure ingurunea, gainera, egokia da horretarako. Gurea baino leku euritsuagoetan arrakasta badu, hemen zergatik ez du izango», nabarmendu zuen Kortak.

Informazioa

Zumaian maiatzaren amaieran eta ekainaren hasieran egingo



Gotzon Enbil kiroltako zinegotzia, Marisol Garmendia diputatua eta Oier Korta alkatea. J.L. ROMATET

dute ikastaroa, Zumaia Herri Eskolako patioan. Eurria egingo balu, eskola bertako frontoian egiteko aukera egongo litzateke. Saioak Gurrupilartea elkarteak eskainiko ditu, eta, bertan, bizikleta gainean ibiltzen erakustez gain, bizikleta mantentzeko oinarrizko irakaspenak emango dira, eta baita bide segurtasune-

rako eta zirkulazio zein bizikidetzara arauetarako elementuak eta gomendioak ere.

Hori guztiaz gain, parte hartzaileek Energiaren Euskal Erakundeak utzitako bizikleta elektrikoak probatzeko aukera ere izango dute.

Izena Lubaki kiroldegian eman ahal izango da, maiatza-

ren 25era arte, eta doan izango da. Ikastaroaren inguruko informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, info@lubaki.eus helbide elektronikora mezua bidal daiteke.

Ikastaroa Bizikletaren Plan Estrategikoko ekintzetan kokatzen da, eta Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluak babesten du.



ERGELA

Apirilak 27 ostirala, 22:00etan
Aita Mari aretoan
3 sarrera bikoitz



Sarrerek eskuratzeko:
Osteguneko 15:00ak baino lehen. Telefonoz: 943-89 00 17
Internetez: urolakosta.hitza.eus helbidean Harpidedunen Txokoa atalean. Saridunen izenak ostiralean argitaratuko ditugu.

SARRERAK

GIPUZKOA BASKET GBC-SAN PABLO BURGOS

Apirilak 29 igandea, 18:00etan
Gipuzkoa Basket Club-ean
Sarrera bikoitz bat



harpidedunen
TXOKOA HITZA



Puntuka
Maitane Subijana

Ezkontzearena

Udaberrian omen gaude. Noizbait norbaitek ordena ezarri nahi izan zuen munduan. Sortu ziren arauak, norma estandarrek, ordutegi eta betebeharrak. Boteredunek maizenik.

Ordena edo kaosa?

Eta horrela martxoak 21etik ekainak 21erako egunak udaberri izenez bataiatu zituen baten batek: etiketa.

Kexati ibili gara udaberria deitzen diogun garai honetan eguzkiak bazterrean ezkutatzea erabaki duelako, eta inork gutxi maite du bazterrean egotea, inork gutxi maite du bazterrekoa.

Urte sasoi honekin lotzen dugu uda usaina, terrazen estreinaldia, txorien kantuek eta larunbatean herriko kaleetan zehar poteoan ari zarela topatzen dituzun ezkongaien agur festak. Horra: «despedidea, hauxe da despedidea, despedida honen tristea», Maurizia Aldaiturriagak bazekien zerbait.



Pasa den asteburuan ikusi nuen lehen mozarroa, herriko tabernan nengoela han agertu zen gizonez osatutako lagun kuadrilla bat. Zalapartaka sartu ziren tabernaren barrura, guztiok jabetzeko moduan, geure arreta bereganatuta. Txakolina lagun zuten guztiok (badakizue behin Getariara etorrita edan beharreko praktika errituala bilakatu da), eta taldeko azken kidea sartzean jaso nuen lehen heriozko kolpea. Toreatzailearen arropa koloretsuak ez ziren oharkabea igaro. Ezkongaiak buruan zuen kapela beltza eta eskuetan bi ezten. Aise identifikatzeko moduko mozarroa, boterea eman zion trajeak. Uztailean ezkontzen da toteroa.

Ezkondu aurretik agur festa antolatze-

ko ohitura madarikatua ere ezarri zen hor nonbait. Agur esan beharra ezkon aurreko bizimoduari, agur pagotxari, lagun taldeari, bazarenaren zati bati, lehengo zuari; bizitza bati, besterik gabe.

Beldurtzen eta ernegatzen nau hainbeste despedida ikusteak, baina kezkatzen nau jendearen ezkontzeko beharrak, maitasunaren hierarkian ezkontzea gailurreko keinua balitz legez.

Ongian zein gaizkian, osasunean eta gaixotasunean bizitzako egun guztietan besteari leial izatera kondenatzen zaren une hori. Baina badaezpada festa giroan ospatzen da, ez gaitzen asalda. Eleganzia eta lurrin usainak, makillaje eta traje-

ak; guztia da zuzena, guztia dago okey. Izeba langabezia, lehengusua prekaritatean, baina hala ere bazkaritarako ez da falta kabiarrak. Ezkongai aldarean traje zuri luzez «mozorrotuta», hori da birjintasuna eta purua dela erakusteko modua. Eliza katolikoak garbiaren dogma onartu zuen, eta zuria garbitasunaren ikur bihurtu zen.

Zenbat protokolo bestea maitatzeko, kidearen dependentsia maitatua sentitzeko. Hor hasten da norberaren askatasunaren galera. Agurrak eta sakrifizioak.

Egongo da hori ukatzen duenik, baina orduan zein da agur festak antolatzearen funtsa? Udaberriko mozarro festetan pagotxari egin beharreko agurraren beharra?

Desio duguna desiratzea ez da kointzidentzia askea, ezkontzea praktika askea ez den bezala.

Zertarako ezkondu egingo baituzu bekatu. Ondoren datorkizu ezkontzearen infernua, koldar izateak dakarren eternitate. Aitaren eta semearen izpiritu santu guztiok madarikatuko zaituzte, errosario guztietan ere emakume guztiok ez baitute zu madarikatzeko adina botere. Amen.

Fededuna izan ez, eta elizaz ezkondu, orduan bai infernu bikoitza. Beti da kontu bera, tradizioaren izenean, amen. Baina lasai, ikusiko ditugu mutilak neskez jantzitako mozarroekin, toreatzaile eta artaldeak, baita plastikozko zakil ugari ere. Dena den hemen guztiok gara aurreakoiak, ez fededunak, baina eliza eta traje zuriak egun horretan badu bere xarma. Orain aureskua dantzatu ordez atzeskua dantzatu beharko da.

Gutunak



Mertxe Otaegi

Azken hantsa eman du Nuarben emakume handi eta maitagarri batek, Mertxek. Mertxe Otaegik. Emakume adore-

tsua izateaz gain, ama bat eta izeba handi bat izan da. Askok ezagutu dugu Mertxe, eta jakin badakigu azken urte hauek ez direla errazak izan ez berarentzat, ezta bere sendiarentzat ere. Izan ere, gaixotasun larri batek etxean loturik izan du. Gogorra izan da amaiera, eta orain, atsedena hartu du.

Mertxe Otaegiz gauza asko idatz eta esan daitezke, baina nik bat aipatu nahi nuke: zein

duina izan den bere ibilbidea. Egunsenti krudel batek ekarri zion inoiz espero ez zuen berria. Burgosko pareta batean bere abizena bortitiz oihukatu zuten militarrek: Otaegi! Eta ondoren tiroak. Bere ahizpa Mariaren semea zen Angel Otaegi, eta heriotza injustu hark markatu zuen, tamalez, bere eta gure herriaren historia.

Putreek beren hegoak zabaldu zituzten, eta barkamenik jaso

gabe, justizia gabe eta aitortza gabe, otaegitarrek zokoratzen saiatu ziren. Baina emakume adoretu honen eta bere sendiaren aurrean galdu egin dute. Ez zen erraza, baina zorionez Mertxek eta bere senideek gorrotari maitasunez erantzunda egin dute aurrera. Ez da batere erraza izaten heriotzaren inguruan eraikitzea, baina oroimena eta justizia etengabe eskatuz argia ekarri zuen pixkanaka negu gogorrean. Tristeza da heriotza baten bizitza markatzea. Horregatik, ziurrenik, beste bizi bat merezi zuen Mertxek, askoz goxoagoa. Baina tokatzen zaigun bizitzaren aurrean dugun jarrera da garrantzitsuena, beti. Pazientzia behar da, baina ez dezagun ahaztu denborak dena bere lekuan jartzen duela.

Horregatik, Mertxe duina izan zen oso. Bizitza osoan. Bere bideak gogorrak, bainaaldi berean goxoak izan ziren, sentitzen den maitasunaren bideak izan baitziren bereak. Ez da bizitza erraza izan Mertxerena, baina

gu guztion errespetua eta aitortza irabazi ditu.

Esango bagenizu, Mertxe, egunsentiak guri ere beldurra ematen digula. Eta guk ere sumatzen dugula iluntzearen ostean iluntze luzeena etorriko dela. Ez gaitzazu bakarrik utzi, gure maitea, ez gaitzazu bakarrik utzi inoiz egunsentian; guk ere ez zaitugulako inoiz bakarrik utziko, eta gu garen bitartean zu ere ez zarelako inoiz bakarrik izango. Oroimena dugun bitartean azalduko dugulako Nuarben duintasuna ikasi daitekeela, eta gure artean izango zarela egunsentietan.

-Eneko Etxeberria, Azpeitiko alkatea. Azpeitia.

HITZAk irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dute 2.500 karaktere —espazioak barne— baino luzeago izan behar. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Urola Kostako Hitza, Araba kalea 27, 20800 Zarautz. Internet bidez: urolakosta@hitza.eus.

BERRIA TALDEAK ADMINISTRARIA BEHAR DU

(Erref:ADM-18)

Idazkaritza-lanak eta lan administratiboak burutuko dituen pertsona baten bila gabiltza.

Eskatzen da:

- > Kudeaketa edo Administrazio arloko ikasketak.
- > Administrazio arloko ezagutza (fakturazioa, kontabilitatea...).
- > Euskalduna izatea (gutxienez EGA edo balioidea den euskara maila).
- > Ofimatika ezagutza.
- > Kontutan hartuko da administrari lanetan eskarmentua izatea.

Eskaintzen da:

- > Aldi baterako lan kontratua.
- > Lanaldi erdiko lanpostua.
- > Lantokia Andoainen.

Interesa duenak bidali curriculum, **maiatzaren 2a baino lehen**, erreferentzia zehaztuz, helbide honetara: gizabaliabideak@berriataldea.eus

Iragarki laburrak

Alokagai

Duplexa alokagai Azpeitian. Etxebizitza alokatzen da Azpeitian, Loiolan (Xanaduko etxetan). Apartamentu duplexa da. Interesa dutenek telefono zenbaki honetara deitu behar dute: 690 84 22 92.

-AINITZE AGIRREZABALA

Trumpen Amerika munduaren aurrean hitzaldia eskainiko duzu gaur. Zer kontatuko duzu?

Barack Obamaren eta Donald Trumpen garai edo zubi hori bizitzea tokatu zait AEBetan, eta nire esperientziatik bi gauza azaltzen saiatuko naiz: batetik, gauzak nola aldatu diren Obamaren garaitik Trumpenera, eta zerk eragin duen azken horren garaipena. Eskubide zibiletan edo arrazakeriaren aurkako borrokan Obamak aurrerapauso batzuk eman zituen, baina AEBetako gehiengo kontserbadore zuriak erreakzio bat izan zuen Obamak irudikatzen zuen horren aurka, eta azalduko dut Trump Obamaren ondorio bat dela. Aldaketa hori, noski, nazioartean izugarritzeko eragina ari da izaten, AEB munduko potentzia handia delako.

EITBrentzat berriemaile aritu zara AEBetan, bost urtez. Zer moduzko esperientzia izan da?

Profesionalki oso aberasgarria. Nik beti egin dut lan nazioartean; ikasle nintzela Balkanetara joan nintzen hango gatazkaren berri ematera. Bost urtez AEBetako egunerokoa kontatzea izugarria izan da niretzat, garai historiko garrantzitsua bizi izan baitute bertan. AEBetako 50 estatuetan aritu naiz lanean; eta hori sekulako zorzea eta esperientzia da kazetari bezala.

Pertsonalki ere oso interesgarria izan da. 11 eta 7 urteko bi seme ditut, eta familia guztia egon gara han. Euskal Herrikan kanpo bizitzeak haien hezkuntzan eta mundua ikusteko moduan nola eragin duen ikustea oso aberatsa izan da, nahiz eta kanpoan bizi zarenean gauza asko sumatu faltan.

Zer iritzi duzu Trumppez?

Trump da AEBetako sektore kontserbadorearen eta populazio zuriaren erreakzio bat Obamak irudikatzen zuen guztiaren aurrean. Trumppek AEBetako gizartean mamu asko esnarazi ditu. Esaterako, garbi ikusi da AEBetan arrazakeriaren gatazka ez dagoela garaitua, eta, gainera, Trumppek posizioa hartu eta areagotu egin du arazoa. Eztabaida horrek AEB erabat zatitu du, eta azpimarratu nahi dut fenomeno globala bilakatu dela. Izan ere, mugimendu populisten eta, zenbait kasutan, faxisten gorakada eta eskubideen murrizketak leku askotan ari dira gertatzen, baita Europan ere.

Zer balantze egiten dute AEBetan Trumpen alde egin zutenek zein kontrakoek?



ETB

«Bost urtez AEBetako egunerokoa kontatzea izugarria izan da»

MIKEL REPARAZ AEB-ETAN BERRIEMAILE ARITU DA

Munoandi elkarteak hitzaldi zikloa antolatu du, eta Mikel Reparaz kazetariak (Arbizu, Nafarroa, 1975) eskainiko du lehen saioa gaur, Sanagustinen, 19:00etan. AEBetan bizitako esperentziaz ariko da.

Esango nuke botoa eman zion, gehiengoak, behintzat, ez duela inolako damurik erakutsi. Kontuan hartu behar da Trumppek hauteskundeak irabazi zituela Hillary Clintonek baino hiru milioi boto gutxiagorekin; beraz, gehiengo sozialaren babes ez zuen jaso. Trumppek oso babes txikia du gizartean, oro har, baina bere jarraitzaileek %100ean babesten dute. Eta horren arrazoia da AEBetako ekonomiak gora egin duela eta langabeziak behera. Alabaina, Trumpen aurka jende eta kolektibo askok bat egin du –demokratek, errepublikanoek, ezkerrekoek, baita eskuinekoek ere– eta Trumpen aurka erresistentzia mugimendu zabala sortu da.

Trumppek komunikabide handi askorekin duen jarrera oldarkorak nola eragin du kazetari-tza egiteko moduan?

Hedabideen aurka duen jokaera oso potentea da. Eraikuntzaren munduan aberastu den enpresaria da Trump, baina, beste al-

detik, bere aurpegia ezaguna da *showman* bat delako. Berak beti esan izan du nahiz eta berataz gaizki hitz egin, berataz hitz egitea dela garrantzitsuena, eta hori muturreraino eramatu du.

300 erlijio baino gehiago praktikatzen eta 500 hizkuntza inguru hitz egiten dira AEBetan.

Biztanleen %99 etorkinak dira edo haien oinordekoak. Zer da AEB zuzentzat?

Iruditzen zait gizarteak historian izan duen esperimenterik interesgarriena dela AEB, eta, batez ere, New York. Azken hori kulturalki erreferente bat da munduan. Iruditzen zait AEBek du-

ten aniztasunagatik izugarritzko aberastasuna duela. Gizarte modernoaren konkista asko AEBetatik datoz; LGBT komunitatearen eskubideak aldarrikatzen, esaterako, New Yorken hasi ziren. Alde negatibo asko ikusten dizkiegu AEBei, baina aberastun askoren sorlekua da.

Trumpen izendapenak zer aldatu du AEBetan?

Askok aldatu dira gauzak, baina ez bakarrik Trump iritsi denetik, aurretik datorren kontua da. 2008an Obamak bere lehen hauteskundeak irabazi zituenean ere han izan nintzen berriemaile. Jendearen ilusioa izugarria zen, lehen presidente beltza Etxe Zurira iritsi zelako. Arrazakeriaren gatazka eta gerra zibila AEBetan amaitu zirela idatzi genuen orduan kazetari askok hedabideetako titularretan. Aurreneko legealdian esperantza horrek jarraitu zuen; bigarrean, ordea, ikusi genuen Obamak ez zituela bete gizarteak eta zenbait kolektibok zituzten asmoak, eta 2014an hasi ziren arrazagatik istiluak. Egoera asko okertu zen, eta esango nuke bai Obamak, bai Trumppek gizarte zati zutela.

AEBetan hartutako erabakiek nola eragiten dute munduan?

Zuzenean eragiten digute neurri askok; Trumpen America First [Amerika aurrena] merkataritza politika protekzionistak, esaterako. Trumppek iragarri du muga zergak ezarriko dizkiola altzairuari. Euskal Herriko enpresa askok altzairua ekoizten dute, eta AEBek halako muga zergak ezartzeak esan nahi du Europan eta, zehazki, Euskal Herrian lanpostu asko desagertuko direla. Kultura politikari eta demokraziaren bilakaerari dagokionez ere eragin handia du AEBetan gertatzen denak. Zoritzarrez edo zorionez, neurri handi batean AEBen kulturaren aterkipean bizi gara.

Eskelak

Hilberriak Urteurrenak Eskertzak

UROLA KOSTAKO HITZAn jarrita, Goierriko Hitzan eta Atarian DOAN

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu
urolakosta@hitza.eus / Tel: 943-89 00 17

Eskelak orain merkeago TXIKIA (82mm x 64mm): 100 € / *Harpidedunentzat: 50 €
HANDIA (124mm x 64mm): 150 € / *Harpidedunentzat: 75 €
ESKERTZA (38mm x 64mm): 50 € / *Harpidedunentzat: 25 €

*Harpidedunak HITZAko bulegotik, pena bost lantze.



Milagros Alustiza Ayerbe

(Estanis Agirrerren alarguna)



*Seme-alaba, biloba-birloba
bagoaz aurrera etenik gabeko sokan,
nahiz eta gaur aurkitzen garen
zuri agur esan beharrean.
Egon zaitetzeguru amona
izango zaitugula guztiok bihotzean.*

SEGURA-ZARAUTZEN, 2018ko apirilaren 26an

Argitaratzailea: Urola-Kostako Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0188-04. ISSN. 1697-8587
Zuzendaria: Nerea Uranga.
Egoitza nagusia: Zarautz. Araba kalea 25, 20800, 943 89 00 17. **Azpeitia.** Perez Arregi 1, behe, 20730, 943 81 38 41.
Posta elektronikoa: urolakosta@hitza.eus.
Webgunea: urolakosta.hitza.eus.
Zuzendariordea: Aritz Mutiozabal.
Kudeatzailea: Uxua Ostolaza.
Publizitatea: Urola Kosta: 673-699 095. publiuro-la@hitza.eus.
Zarautz: 607-498 728. 607-615239. zarautz@hitza.eus.
Orio-Aia: 607-498 723. orio@hitza.eus. **Zumaia-Getaria:** 607 498 723. zumaia@hitza.eus. **Azpeitia:** 607-498 725. azpeitia@hitza.eus. **Azkoitia:** 607-498 727. azkoitia@hitza.eus. **Zestoa-Aizarnazabal-Errezil-Beizama:** 607 498 727. zestoa@hitza.eus.

Urola-Kostako Hedabideak S.L.ko kideak:



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Getaria, Errezil, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko):
902 82 02 01



Temperatura
V 15°
A 10°

Mareak
Itsasgora 02:38-14:12
Metroak 3,70-3,69
Itsasbehera 08:49-21:05
Metroak 0,87-0,94

zarauzkohitza.eus / urolakosta.hitza.eus

Adiskide Fest egingo dute lehen aldiz Aizarnazabalen, etzi. Lau musika talde, hiru kontzertu eta beste horrenbeste agertoki zain izango dituzte bertaratzen direnek, 19:00etatik aurrera.

Musikari gazteen plaza berria

-MAILO OIARZABAL

Aizarnazabal

Zuzeneko musika nagusi izango da larunbat iluntzean eta gauean Aizarnazabalgo tabernetan eta Gaztetxean, Adiskide Fest jaialdiaren eskutik. Hiru kontzertu prestatu dituzte, lau taldekin, eta hiru agertokitan: 19:00etan, Zumaia Blowin Soul taldeak Uztarrin joko du; 20:00etan, Troxkan, Azkoitiko Slaktuis taldea ariko da; eta 22:30etik aurrera, Gaztetxean, Azkoiti-Eibarko Deus Ez eta Azkoitiko Hartz taldeen txanda iritsiko da. Gaztetxeko kontzertuak ikusteko 3 euro ordaindu beharko da; tabernetakoak, aldiz, doan izango dira.

Herriko Gaztetxearen egitasmo berria da Adiskide Fest; Aizarnazabalgo Gaztetxeko Adiskide gazte taldearen izena jarri diote, hain zuzen ere, jaialdiari. Iazko azaroan antolatu zuten lehen kontzertu gaua Gaztetxean. «Oso gau polita izan zen, eta kontzertu gehiago antolatzeko gogo egin zitzaigun», diote Adiskideko kide eta jaialdiaren antolakuntzan ari diren Haritz Gorritik, Inhar Muguruzak eta Janire Garatek.

Esan eta egin, harrezkero kontzertuak ohiko bihurtu dira Gaz-



Haritz Gorriti, Janire Garate eta Inhar Muguruza, jaialdiaren karteekin. AIZARNAZABALGO GAZTETXEA

tetxean; «hilean behin, gutxi gorabehera», kontzertu gaua izaten dute. Aizarnazabal «talde gazteentzako plaza izatea nahi» dute, eta horregatik erabaki dute beste pauso bat ematea eta larunbateko jaialdia antolatzea, «halako musika maratoni bat izateko herrian». Antolatzaileei «dibertigarria» iruditu zitzaizen kontzertuak herriko hiru gunetan banatzea, tabernarietara harremana sendotzeko, bide batez. «Herrian mugimendu gehiago sortuko da horrela, eta Gaztetxera bestelako publikoa hurbiltzeko aukera ere izan daiteke. Gai-

nera, ikusleentzat entretenigarria izan daiteke gunez gune ibiltzea. Formula frogatzeko gogoz gaude», diote.

Herria ingurukoentzat musika plaza eta erreferentzia bihurtzeko asmoarekin lotuta, talde guztiak eskualdekoak izatea ere ez da kasualitatea: «Inguruko taldeekin hasi nahi izan dugu, hurbileko publikoa ahalik eta gehien erakartzeko. Eskualdean hamaika talde dago, eta horiek Aizarnazabaldik pasatzeko amorratzen gaude. Beraz, beste talderen batek interesa badu, harremanetan jar dadila gurekin,

eskertuko diegu eta!», bota dute Adiskidekoek.

Indarberrituta

Etziko musika festa indarberritze prozesu baten emaitza ere bada. Gaztetxearen dinamika ahulduta zegoela ikusita, joan den urte amaieran «laguntza eskatu beharrean» aurkitu ziren Adiskidekoak. Asanblada irekiak egin zituzten, jende berria batu zen proiektura, eta emaitzak antzematen hasi dira. «Ideia mordoa» dute, horiek gartzeko gogoz daude, eta proposamen berriak jasotzeko ere bai.

Azpeitian eta Zestoa ere izango da festa giroa

Aizarnazabalgoan ez ezik, Azpeitiko eta Zestoako gaztetxeetan ere hitzordu garrantzitsuak dituzte asteburuan.

Zestoako Gaztetxean 29. urteurrenaren ospakizunen azken txanpan murgilduko dira bihar eta etzi. Bihar, 23:00etan hasita, Sofa eta Rural Zombies taldeen kontzertuak izango dituzte. Larunbatean, urteurreneko festa nagusiarekin agurtuko dituzte aurtengo ospakizunak; bazkaria, kalejira eta bertsio gaua egingo dituzte.

Azpeitian, berri, aurrera darrarai Gazte Asteak. Joan den igandetik maiatzaren lehenera arte, ekitaldiz betetako egitaraua prestatu du hango Gaztetxeak; baina etziko bereziki egun bete izango dute, bazkariarekin, Tony Rocketen kantaldiarekin eta karaokearekin.

Hain kilometro gutxiren barruan hiru gaztetxeren egitasmo garrantzitsuak batera egokitzeak «pena eman» arren, ikusten diote alderdi ona ere Aizarnazabalgoek, «esan nahi baitu gaztetxeak bizi-bizi daukela, eta hori pozgarria da». Inguruko gaztetxeekin harremanak estutzea begi onez ikusten dute, era berean, Adiskide gazte taldekoek: «Guk ez dugu harreman handirik gainerako gaztetxeekin. Hala ere, behin baino gehiagotan hausnartu dugu horren gainean eta benetan positiboa litzateke inguruko gaztetxeekin harremanetan jartzea».



HARPIDEDUN IZATEAK BADU SARIA

1 URDAIBAI BIRD CENTER

Bi sarrera bikoitz
 [Telefonoz parte hartzeko eskaitza zenbakia: 41]

Aranzadi Zientzi Elkarte
 Orueta 7, Gauegiz Arteaga
 946-25 11 57
 portuzar@birdcenter.org · www.birdcenter.org



2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi sarrera bikoitz
 [Telefonoz parte hartzeko eskaitza zenbakia: 42]

www.aquariumss.com



3 MENDEXA AVENTURA PARK

Bi sarrera bikoitz
 [Telefonoz parte hartzeko eskaitza zenbakia: 43]

www.mendexapark.com
 688 85 62 83
 MENDEXA

